

CIGek eta ELAk, DIPUTATUEN KONGRESUKO TALDE PARLAMENTARIOEI

Hainbat erakunde sindikal eta sozialek otsailaren 17an greba orokorra deitu genuen martxoaren 29rako Galizian eta Euskal Herrian. Deialdi honen ondoren, Estatuko beste sindikatu batzuk egun bera hautatu dute greba orokorra deitzeko.

Gure iritziz, jokoan garrantzi handiko gauza asko dago, langile-klasearentzat eta gizarte guztiarentzat, batik bat talderik ahulenen-tzat. Gauza bat argi dago: Eskubide laborala eta sozialek ez daukate zerikusirik krisiaren jatorriarekin, baina ebidentzia hau gorabehera, egiten den politikak eskubide horiei ordainarazi nahi die krisia. Jokabide hau injustizia nabarmena da.

Baina larria ez da hori bakarrik. Eskubide laborala eta sozialei eraso egiteko erabakiak ez dio onik egiten ekonomia erreala; aitzitik, egoera ekonomikoa zeharo okertzen du, krisiari irtenbide solidarioa emateko aukera galarazten du, eta jende asko pobrezian eta bazterketan erortzea eragiten du. Greba orokorra aski dela esateko egingo dugu, zentzurik gabeko joera hau geldiarazteko eta ez hanka ez bururik ez duen egoera hau amai dadin; bestelako ikuspegi bat indartu nahi dugu, eta hau gizarteratzea ezinbestekoa da.

Gure ustez, manipulazio handi bat jasaten ari gara, hedabideetan oihartzun handia duen manipulazioa; berau erabili egiten da krisiaren kudeaketa kapitalaren mesedetan egite aldera. **Europar erai-kuntza ez da inondik ere zalantzan jartzen**, porrot soziala izan duen arren. Europa hori lehenbailehen berrikusi beharra dago. CIGek eta ELAk bere garaian Itunaren AURKAKO botoa eskatu genuen. Honetarako eman genuen zergatietako bat, defizitaren eta zor publikoaren kontrola sakratu bihurtu nahi zela, enplegua eta eskubide sozialak bazter uzten zirelarik. Doikuntza-politikak eta eskubide murrizketak ikuspuntu horren ondorio logikoa ziren.

Ordutik igaro den denborak zoritxarrez arrazoia eman digu. Itunaren Europar Batasunak merkatuari ematen zion lehentasuna, eta ez zeukan hori orekatzeko osagai bat ere. Adibidez, ez da zalantzan jartzen Europan hainbat erakundek daukaten egitekoa. Esaterako, botere politikoaren independentzia eta EZBaren funtzioa, honek finantz-erakunde pribatuei kreditu merkea ematen dielarik, jakin arren diru hori hein handian zor publikoarekin espekulatzeko erabiliko dela. Bankuek krediturik ez dute ematen, Europako finantz-erakundeek bi hiletan bilioitik gora euro jasoagatik ere (EBko BPGaren %8tik gora). Ez da zalantzan jartzen defizitaren zati baten jatorria banketxe horien onerako izan den interesen ordainketa ez-legitimoan datzala.

Gaur Europar Batasunak, dumping laboral, sozial eta fiskala erakarri ostean, Europa guztiari irtenbide bakarra ezarri nahi dio, edonor dela ere gobernuan dagoena: doikuntza estrukturalen bidea.

Zor eta defizit publikoa aprobetxatu egiten dira doikuntza estrukturalen agenda errazago zurrizteko. Neoliberalismoaren aspaldiko errezetak, zeinak munduko beste eskualde batzutan hondamendi itzelak eragin dituzten, European ere gogotsu ari dira ezartzen; Europak makalik zegoen eta fama txarra zuen Nazioarteko Diru Funtza berpiztu du. Hau da Europak hartu duen rola, ia klase politiko guztiaren babesarekin.

Europa horrek toki askotan adierazten ditu ahulezia demokratikoak, eta horrek gu, sindikatu garen aldetik, erabat kezkatzen gaitu. Gobernuak kanpoko aginduz aldatzen dira, lehen ministroak ere horrela ordezkatzeko dituzte, buruzagi politikoak pairatzen ari garen krisia eragin zuten erakundeetatik datoz... Agian kasurik nabarmenena Grezia dugu: amairik ez duen murrizketa agenda, zeina Greziako herria amildegira eramaten ari den, koalizioko gobernu baten esku dago, sozialistak, zentro-eskuina eta eskuin muturra biltzen dituen gobernuak. Honelako adibideek ondorio batera garamatzaite: krisia ekonomikoa ez ezik funtsean politikoa eta demokratikoa da.

ZERGA-POLITIKA

Zerga-politika ezinbestean goitik behera aldatu beharra dago. Ezin da onartu -honetan ere eztabaidarik ez da izan- defizita murrizteko modu bakarra murrizketak direnik, izan ere, tarte handia baitago Estatuan (eta EAEn zein Nafarroan, erkidego biek esparru honetan arauak emateko ahalmena baitute) Europako batez besteko presio fiskalarekiko. Zerga-politikan goitik beherako aldaketa exijitzen dugu; errenta altuei eta kapitalaren errentei emandako opariak bertan behera utziko dituen aldaketa; dagoen iruzur fiskal itzela borrokatuko duen aldaketa.

Deskapitalizazio fiskalerako politika egin izan da; eta propio egin dute. Areago, eutsi egiten zaio horri, jakinagatik biltzen den dirua gutxitzen ari dela, eta gehiago gutxituko dela. Langabe eta pobreen kopuruak hazten ari dira, soldatak jaisten; murrizketa publikoekin eta lur jota dagoen ekonomia errealekin, diru gutxiago biltzen da. Horrek defizita haztea eragiten du, eta hau murrizketa gehiago egiteko aitzakiatzat erabiltzen da. Ikuspuntu sozialetik politika zentzugabea da.

Diru bilketaren jaitsiera ez da soilik atzeraldi ekonomikoaren ondorioa. Horren adierazgarri da gure presio fiskala nola jausi den, Europako batez bestekoa baino askoz gehiago. Izan ere, diru gutxiago ez da krisiaren ondorioz biltzen, errenta altuen eta kapital-errenten mesedetan egin ziren erreformengatik baizik, eta zergak ez ordaintzeko

egiten den ingeniarietza fiskala nahiz iruzur fiskal itzela medio (badi-rudi hau hazten ari dela).

Ondo asko dakigu doikuntza estrukturaleko politika hauek egin diren herrietan langabezia eta txirotasuna asko hazi direla. Sindikatuok badiukagu honen berri. Horregatik, greba orokorraren helburu bat alternatiba soziala aldarrikatzea da, eta beronen funtsezko osagai dira zerga-politika, gaur aitortzen ez diren edo urriegi diren gizarte-eskubideak (gizarte-zerbitzuak, prestazioak, etab.), zerbitzu publikoetako aurrekontuen defentsa eta gehitzea (osasungintza, hezkuntza...), horrek guztiak aberastasuna birbanatzeko balio baitu.

PENTSIOAK

Pentsioen murrizketa. Joan den urteko urtarrilean greba orokor bat deitu genuen pentsioen murrizketa handia, erretiro adina 67 urtera atzeratzeko neurria barne, salatzeo; hau CCOOek, UGTk, Espainiako patronalak eta Zapateroren Gobernuak sinatu zuten. Erreforma hau bete-betean indarrean denean, pentsio berriak batez beste %30 txikiagoak izango dira. Gainera, erreformak berak murrizketa gehiago ezartzeko bitartekoak ere jaso zituen. Eta Raxoiren gobernuak bide horretatik jarraitzeo borondatea adierazi du.

AURREKONTUEN EGONKORTASUNA

Konstituzioaren aldaketa eta Aurrekontu Egonkortasunerako Legea. Aldaketa hauek erabateko lehentasuntzat jotzen dituzte zorra ordaintzea eta defizitari ezarritako muga gordina; baina gainera gure nazioen autogobernuari zeharo eragiten diote. Lege-aldaketa hauek – Konstituzioarena bera ere – era antidemokratikoan egin dira, herritarren eztabaida eta kontsultarik gabe, eta abuztu betean. Aldaketa hauek banku pribatuek Herri-Administrazioekin egiten duten politika espekulatiboa asetzen dute; ondorioz, politika guztiz neoliberalak ezartzen zaizkie Herri-Administrazio guztiei. EB gauza berbera ari da estatuekin egiten.

Horrenbestez, argi dago murrizketa handiak ekarriko dituen beste aldi batera goazela, estatuaren aldetik zein Autonomia-Erkidegoetan eta gainerako Administrazioetan. Murrizketa hauek batik bat gizarte-gastuan izango dute eragina.

FINANTZA-ERREFORMA

Erabaki hauekin batera beste batzuk izango dira, esaterako **finantza-erreforma**, finantza-sistemaren pribatizazio eta kontzentrazio prozesuan egingo den beste urratsa. Bere helburua da -diru-laguntza publikoekin- kapital kontzentrazio eskerga lortzea (finantza-erakunde gutxi batzuk geratuko dira, eta hauek pribatuak izango dira). Finantza-errealitate berri honek finantza-sistematik baino askoz haragotago izango du eragina. Botere indartsu honek demokraziari berari eragiten dio. Ez baita soilik gertatzen kapitala pilatzea; beste errealitate batzuk ere hor daude: sare klientelarrak, hedabideen kontrola, eragin politikoa... Bi sindikatuok helburu honen aurka gaude eta finantza-erakunde publikoen rola aldarrikaten dugu, batez ere Aurrezki-Kutxena.

ERREFORMA LABORALA eta NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARENA.

Erreforma hau baldintzatu dutenek esan dute helburua, atzerriarekiko lehiakorrango izate aldera, soldatak jaistea dela, moneta devaluatu ezin denez. Erreformaren xedea sekula ikusi gabeko soldata murrizketa bat da, eta lan-baldintzak okertzea. Negoziazio kolektiboa desitxuratu nahi da, aberastasuna banatzeko bide ordeztuak doikuntza tresna bihurtuta. Erreformak Lan-Zuzenbidea bera auzitan jartzen du, eta lan-harremanean botere guztia enpresarioari ematen dio; gainera, langileen defentsa kolektiboa ahuldu nahi du.

Lehenik aipatu nahi dugu soldatek ez dutela inondik ere krisia eragin, eta ez dutela zerikusirik lehiakortasun gabeziarekin. Soldatek aberastasunaren banaketan zuten zati handi bat galdu dute, luzaz prekarietatea ezartzeko erabakiari eutsi zaiolako.

Halaber, ukatu egiten dugu erreformaren helburua enplegua denik. Enplegua aitzakia da, orain, erreforma onartuta dagoelarik, gobernuak edota patronalak aitortzen duten arren langabezia epe laburrean gehitu egingo dela. Horixe da logikoa, izan ere, kaleratzea errazagoa eta merkeagoa egiten bada lanpostu gehien suntsitu duen Europar Batasuneko estatuan. Langabezia hazi egiten da, baita gehiago hazi ere, bestelako politikak erabakitzen ez diren artean.

Erreforma honek, antisoziala izateaz gainera, ez du inongo emaitza positiborik ekarriko, areago ustez lehiakide diren estatuek antzeko politikak ezartzen dituztelarik. Soldatak jaisteko "lehia-abantaila" desagertu egiten da gainerakoek gauza bera egiten dutenean. Eredu orokorra soldatak jaistea bada, ez dago inongo irtenbiderik. Beti egongo da soldata txikiagoa duen norbait.

Erreformak, laburbilduz, honako ondorioak ditu:

- KALERATZE Ari dagokionez: Jendea iraitzea askoz errazagoa eta merkeagoa izango da. Kontratu berri asko amaitzeko ez da kalteordainik ordaindu beharko. Ondorioa nabarmena da: kalteordainak zeharo murriztuko dira. Tramitazio-soldatak ezabatu dituzte. Aipatzekoak dira ere enpresarioari EEEdak erabakitzeko ematen zaizkion erraztasunak, eta kaleratze gehienak objektibotzat jo ahal izateko erabakia. Aipatu beharrekoa da ere Arlo Publikoan kaleratze objektiboa arautzen dela.
- KONTRATU PREKARIOAGOAK. Taxutzen den lan-sistemak, goitik behera, enpresarioari langileak nahierara erabiltzeko eta are esplotatzeko aukera ematen dio. Lege-iruzur orokorretik beste garai batera igaroko da, babes gabezia legala sagaratzen duen eta “beldurraren diziplina” babesten duen legera. Eskubiderik gabeko kontratu-motak arautzen dira; hau ere erreformaren ondorio gaizto bat izango da. Gure sindikatuek ez dute onartzen kontratuak diru-laguntza publikoz sustatzerik (gainera, onartu ezineko diskriminazioa dira). Begibistakoa da horrek soilik gauza baterako balio duela, enpresei edozein aurrez egiteko asmoa zeukaten kontratuak finantzatzeko.
- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA. Zentralizazioak galarazi egiten du gehiengo errepresentatiboek erabakitzea zein esparrutan negoziatu nahi duten (hau Rodriguez Zapateroren gobernuak onartu zuen); baina gainera, erreforman hainbat bide irekitzen da hitzarmena aplikatu ez edo bere iraunaldia amai dadin (salbuespena, aurrera-eragina...). Bestalde, erabateko lehentasuna ematen zaio enpresa-esparruari, hots, sektoreko negoziazioa ez da orain arte bezala lan-baldintzen gutxieneko maila izango (orain arte sektore-hitzarmen batek edota lanbidearteko akordio batek galaraz zezakeen horrelakorik). Honek lan-harremetan erabateko aldaketa esan nahi du. Negoziazio kolektiboa, CCOOek eta UGTk CEOErekin urtarrilean sinatu zuten Akordioaren arabera, soldata-doikuntzarako tresnatzat hartzen da, ez aberastasuna banatzeko bitarteko gisa. Aipatzekoa da erreforma honek hainbat eta hainbat langilerengan izango duen eragina, babesik gabe utziko baititu. Langileen Estatutuko 84. artikulua azken urteko bi erreformen ondorioz erabat desitxuraturata geratu da; lehenak zentralizazioa ahalbidetzen zuen, eta bigarrenak (oraingo honek) enpresa-esparruari ematen dio lehentasuna, sektore-negoziatioari gailentzen zaiolarik. Nabarmena da CIG eta ELAren iritziz Zapaterok aldatu baino lehengo artikulua askoz hobea zela.
- MALGUTASUN HANDIAGOA. Atal honetan sartzen dira lan-baldintzen funtsezko aldaketak: soldata eta mugikortasuna (funtzionala zein geografikoa).

ELA eta CIG ez gatoz bat CCOOek eta UGTk erreforma hau zuzentzeko egin dituzten proposamenekin. Euren zinezko asmoa areago da “elkarrizketa soziala” nola berreskuratu; ez dute sakoneko eztabaidan sartu nahi. Haatik, erreforma hau erabaki dutenek ez dute mugimendu sindikalarekin adostasunik nahi. Alde bakarreko politika horri babesa ematea beste jarrerarik ez dute onartzen, eta gure sindikatuek ez dute horrelakorik egingo.

PATRONALAREN PRIBILEGIOZKO KOKAPENA. Erreformak erabateko desoreka ezartzen du. **Erreforma basatia da. Patronalari botere guztia ematen dio.** Patronalak lortu du eskatzen zuena. Zاپateroren erreforma garaian zioen ez zuela akordiorik nahi, bai baitzekien etengabeko beherapen sasoian gaudela, eta aurreko gobernuarekin bere helburuak ez zituela mugatu beharrik. Ez zebilen oker; PPren gobernuak gehiago eman dio. Patronaleko ahots batzuk hasi dira greba-eskubidea murriztu beharra aldarrikatzen. Bai, gure ustez lan-araudian egundoko inboluzio bat dugu hau; legea patronalaren aldera erabat lerratu da.

Erreformak beste diru-laguntza bat emango dio patronalari. Oraingotan legearen bidetik. Ugazabak oso ohituta daude -governuen politikan eragin izugarria baitaukate- arazo bat duten aldioro opariak jasotzera, prekarietatea legez areagotzeko erreformetara alegia. Oraingoa ere hauxe egin du Raxoiren gobernuak.

ONDORIOA

Argi dago gobernuak gehiengo zabala duela bere esku erreforma hau aurrera ateratzeko. Gobernuak ez du aldaketarik onartuko; gehienera, aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak “juridikoki argitzeko” aukera aipatzen du. CIG eta ELA sindikatuok Talde Politikotako ordezkarioi eskatzen diegu erreforma hau arbuia deztela, 2010eko eta 2011ko erreformetan eskatu genuen bezalaxe.

Soldatak jaitsi egingo dira; kaleratzeak eta langabezia gehitu egingo dira; kalteordainak zeharo murriztuko dira, eta pobrezia asko hedatuko da. **Martxoaren 29rako deitu dugun greba orokorrak erreforma hau eta murrizketak salatzen ditu, krisiari irtenbide sozial bat ematea aldarrikatzen du,** eta gure esparru sindikal eta soziala zabaltzeko egiten dugu (hau ezinbesteko ikusten dugu), baita sindikalismoa erronka handi baterako prestatzeko ere: langile-klasearen interesak eta helburuak defenditzea.

Elkarrizketa sozial delako hori hilda dago. Izatekotan, elkarrizketa horretan parte hartzen duen sindikalismoak atzerakada sozial handiak onartu behar ditu; hala gertatu zen pentsioekin 2011n eta 2012ko soldatei uko egiteko eta lana malgutzeko akordioan.

Xesús Eladio Seixo Fernández
CIGeko Idazkari Nagusia

Adolfo Muñoz Sanz
ELAko Idazkari Nagusia

